

2 FASEA NABEGAZIORAKO BALDINTZAK



Kasu guztietan EKP-k jarritako neurriak beteko dira.



Itsasontzien jabeak, euren ontzia zelan dagoan ikusten eta mantenu lana egiten joan ahalko dira.



Bizkaian itsasontzia duten pertsonak nabegatu ahalko dabe.



KIROL NABEGAZIOA:

Gainerako kirolean bezala, horretarako ezarritako baldintza eta ordutegietan egin ahalko da.



AISI NABEGAZIOA:

Kirol jarduera ez dan aisi nabegazioak ez dauka ezarritako ordutegirik.

Itsasontziaren zertifikatuetan ezartzen den pertsona kopuruan oinarrituz zainduko da garraiatu daitezkeen pertsona kopurua zehazteko:

- 50% etxe berdinean bizi ez diran biztanleen kasuan.
- 100% etxe berdinean bizi diran biztanleen kasuan.
- Ezin izango da 15 pertsonak gainditu.



Koronabirusarekin gaixorik dagozan pertsonak, sintomak dabezanak edo koarentenan daudenak, galarazota izango dabe jarduera fisikoa egitea.